



PRESTATZEKO ETA HARTZEKO: OBARIOAK ESTIMULATZEKO TRATAMENDUA, MENOPUR[®]-rekin

Obarioak estimulatzean, obulazio anizkoitza eragiten da hormonekin lotutako medikazioaren bidez. Prozesu hori laguntza bidezko ugalketa lortzeko egiten da, hala intseminazio artifizialaren nola in vitro intseminazioaren bitartez. Jarraian, tratamendua ondo egiteko urratsak deskribatuko ditugu. Gogoratu injekzioak edo injekzioek hozkailuan egon behar dutela eta hartu baino 10 minutu lehenago atera behar dituzula, giroko tenperatura lortzeko.

GARRANTZITSUA: Garbitu ongi eskuak eta prestatu erabiliko duzun materiala eskura izango duzun gainazal garbi baten gainean. Egiatzatu medikuak agindutako medikamentua duzula.

MEDIKAMENTUA PRESTATZEA


Zabaltu Menopur[®] medikamentua daraman paketea. Bertan, **medikamenturako disolbatzailea daramaten bi xiringa**, orratz bat eta medikamentu-hautsa daraman bial bat daude. Bial horretan dagoen medikamentua tratamenduaren zenbait egunetarako da.

Medikuak Menopur[®]-en dosia NU-tan preskribatu dizu. **Medikamentua hartzeko 18 xiringetako bat erabili behar duzu. Xiringak FSH/LH proportzioaren arabera unitatetan graduatuta daude.**




Helburua disolbatzailea eta medikamentu-hautsa nahastea da.

Jarri irmoki orratz luze eta mehea (berrosatzeko orratza) aldeaz aurretik disolbatzailearekin kargatutako xiringan, eta kendu babes-estalkia.



Sartu orratza hautsaren bialean, eta injektatu emeki likido guztia.






Gauza bera egingo dugu bigarren xiringarekin, eta beraz, bi xiringen disolbatzailea bialaren barruan geratuko da. Atera xiringa eta orratza.

Mugitu biala emeki, hautsa eta ura nahasteko. Soluzioa gardena izango da eta ez du partikularik izango. **Ez astindu biala**, burbuilak sor baitaitezke medikamentuan.





Hartu medikamentua emateko xiringa, orratza jarrita duela, eta sartu orratza bialean. Jarri biala buruz behera eta atera Menopur®-ren agindutako dosia.	
Heldu xiringari orratza gorantz dagoela, eta egiaztatu aire-burbuilarik ba ote dagoen; halakorik badago, eman kolpe txiki batzuk xiringari, airea goialdean pilatu arte. Jarraian, sakatu enboloa astiro, harik eta burbuilak desagertzen diren arte.	
MEDIKAMENTUA HARTZEA	
Ez injektatu medikamentua larruazala gorrituta, makatuta edo gogortuta dagoen leku batean. Eskuarki, medikamentua abdomenaren aldean ematen da. Injekzioa jartzeko tokia aldatu behar da, eta abdomen-gerriko eskuinaldea eta ezkerraldea txandakatu.	
Garbitu injekzioa jarriko duzun lekua, alkohola edo antzeko zerbait erabiliz. Kendu estalkia orratzari.	
Heldu xiringari esku batekin, eta bestearekin, hartu abdomeneko larruazal-toles bat, leunki.	
Sartu orratza larruazalean osorik eta poliki, 90°-ko angeluan.	
Xiringa hutsik dagoenean, atera orratza geldiro. Ez eman masajea; egin presio txikia ziztada-tokian, besterik ez.	
Medikamentua hartu ondoren, baztertu orratza eta xiringa behar bezala, ontzi egoki batean, eta garbitu eskuak.	
Baliteke zeinu txiki batzuk agertzea inguru horretan; normalak dira. Adibidez: ▪ Ingurua zertxobait narritatzea epe labur batean. ▪ Hematoma txiki bat ziztatu den inguruan. ▪ Arraroa iruditzen zaizun zeinurik edo sintomarik baduzu, esan medikuari edo erizainari.	